

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

ARABAKO BATZAR NAGUSIAK

30/2019 Mozioa, urriaren 9koa, Arabako Foru Aldundiaren lankidetzaren politikari buruz

Arabako Batzar Nagusiek, 2019ko urriaren 9an egindako osoko bilkuran, ondorengo mozioa onetsi zuten:

30/2019 Mozioa, urriaren 9koa, Arabako Foru Aldundiaren lankidetzaren politikari buruz.

1. Arabako Batzar Nagusiek Arabako Foru Aldundiari eskatzen diote jarrai dezala elkartasun eta lankidetzako estrategia argi bat diseinatzeko lanetan, Garapen Iraunkorreko helburuak eta 2030 Agenda oinarri duela.

2. Arabako Batzar Nagusiek Arabako Foru Aldundiari eskatzen diote zeregin zentrala hartu dezala gure lurraldeko entitate guztiek partekatutako lankidetzaren politika bat sustatzeko, artikulatzeko eta eraikitzeko, eta lagundu dezala, lankidetzaren horretatik, Arabako gizartean elkartasun-kontzientzia sustatzen.

Vitoria-Gasteiz, 2019ko urriaren 9a

Presidentea

PEDRO IGNACIO ELÓSEGUI GONZÁLEZ DE GAMARRA